

## HEGAZKINAK

Aulkian eserita nagoela, berriz ere hegazkin bat nire bizkarrean, sekulako zalaparta bat-batean. Oraingoan beste bat buru gainetik, eta algara gehiago, eta handiagoa... zergatik?

Egunez egun gero eta hegazkin gehiago, eta berbots gehiago. Nik ez dut nahi. Nik urrunera alde egin nahiko nuke, bakarrik egoteko; baina ez hegazkin batean. Aske hegan egin nahiko nuke; baina ez horietako hegazkin batean. Nik munduan zehar bidaiatu nahiko nuke; baina ez bizkarra ukitzen didaten hegazkin horietako batean. Aireportura joan nahiko nuke, benetako hegazkinak ikusteko; eta ez paperezkoak.

Horiek ez ditut gogoko. Mintzen naute. Beldur natzaie.

Irakaslea arbelari beha dagoenean soilik ukitzen bainaute...